

## IRAGARKIA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

- a) "Elizatxo auzoko urbanizazioa osatzen duten lurzoruen (bideak eta eremu libreak), Hernaniko garai bateko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko D-1 poligonoa, osatzen duten lurzoruen titulartasuna erregistro aldetik erregularizatzea" izeneko dokumentuari hasierako onarpena ematea. Laga beharreko finen titularrei berariaz adierazi behar zaie aipatutako dokumentua izapidetzerakoan, Korporazioak Elizatxo D-1 poligonoko lurzoru publikoan edo urbanizazioan jasotako lurzoruen gaur egungo Jabetzako Erregistroko inskripzioak baliogabetuko dituela, eta horren ondorioz, Hernaniko Udalaren alde inskribatzeari ekingo dio (emaitza gisa lortuko den finkan multzokatuta).
- b) Aipatutako dokumentua jendaurrean jartzea, laga beharreko finen titularrei entzuteko 30 eguneko epea emanez; tarte horretan egokitzat jotzen dituzten alegazio guztiak aurkeztu ahal izango dituzte.
- c) Jabetzaren Erregistroari eskatuko dizkio kaltetutako finka guztien titulartasuna eta kargen ziurtagiria, kaltetutako finka bakoitzaren inskripzioaren ertzeko aurreneurritzko idatzoharrak, txosten honetako hasierakoak, Hirigintza Kudeaketari buruzko Araudiko 102. xedapenei jarraikiz.
- d) Laga beharreko finen titularrei hogeita hamar eguneko epea ematea, bidezkoa izanez gero, birpartzelatzea egiteko proiektuaren izapideak egitea eska dezaten.

**Hernanin, 2024ko ekainaren 20an**  
**Xabier Lertxundi Asteasuinzarra**  
**Alkatea,**